

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Kontzejuentzako diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2019ko maiatzaren 9ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 463064

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>, eta ALHAOn ere bai, 66. zenbakian, 2019ko ekainaren 7an.

Lehenengoa. Onuradunak

Zuiako udalerriko tokiko erakundeak edo administrazio batzarrak.

Bigarrena. Xedea

Kontzejuaren jabetzakoak diren ondasunetan, edo tokiko parroketan lanak eta inbertsioak egitea, mantenimendu lanak, argiteria publikoa, kultur jarduerak eta jaiak, kaleen eta bideen garbiketa, bideen sarearen mantentze-lanak, kontzejuaren jabetzakoak diren kaleetatik elurra kentzea, gastu orokorrak, ondasunen eta eskubideen inbentarioa, eta jabetzaren erregistroan ondasunen inskripzioa.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2019ko maiatzaren 9an Udal Osoko Bilkurak onartuak, eta ALHAOn 2019ko ekainaren 7an argitaratuak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren hornidura ekonomikoa 200.000 eurokoa da inbertsio eta lanetarako, 70.000 eurokoa argiteria publikorako, 20.000 eurokoa kaleen garbiketarako, 27.000 eurokoa festetarako, 8.000 eurokoa bideen garbiketarako, 10.000 eurokoa elurra kentzeko, 6.104 eurokoa gastu orokorretarako eta ondasunen eta eskubideen inbentariorako eta 15.000 eurokoa erregistroaren inskripzioetarako.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epeak ondorengo egunetan bukatuko dira: lan eta inbertsioena azaroaren 29an, argiteria publikoarena abenduaren 13an, festena, festak egin aurretik, eta, edozein kasutan ere, azaroaren 29an, bideen sarea mantentzeko lanena ekainaren 28an, elurra kentzeko neguko kanpainarena abenduaren 13an, eta inbentarioarena urte horretako irailaren 30ean.

Dokumentazioa Udaleko erregistro orokorrera aurkeztuko da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2019ko maiatzaren 9an

Alkate-Udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA